



Hitzarmen kolektiboetan, haiei buruz hartutako akordioetan xedatutakoaren arabera, eta 2021eko otsailaren 12tik aurrera, EAeko Administrazioan indarrean sartuko direla errelebo-kontratu bat sinatzeari lotutako erretiro partziala eskuratzeko Gizarte Segurantzako araudiak ezartzen dituen baldintza berriak, onartu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Mahai Orokorraren Akordioaren arabera, Hezkuntza Sailak txandakako kontratuak formalizatuko ditu Hezkuntza Saileko lan-legepeko pertsonalaren hitzarmen kolektiboak aplikatu ahal zaien eta erretiro partziala hartu duten lan-legepeko langileak ordezkatzeko. Erretiro partziala hartzeko bete behar dira hurrengo:

BALDINTZAK

Enpresa eta erretiro partziala hartzen duten langileak ados jarriko dira erretiro partziala eta txandakako kontratua gauzatuko diren baldintzetan. Dena den, erretiro partziala eskatzen duen langileak bere eskaerari uko egin ahal izango du, beti ere errelebo-kontratua errelebistari esleitu baino lehen.

Gutxienezko adina eta kotizazioa:

Gertaera eragilearen urtea	Exijitutako adina, gertaera eragilearen unean kotizatutako aldien arabera		Exijitutako adina, gertaera eragilearen unean kotizatutako 33 urte izanez gero
2022	62 urte eta 2 hilabete	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	63 urte eta 4 hilabete

Antzintasuna enpresan: 6 urtekoa jardun osoan, inongo etekinik gabe.

Lanaldi-murrizketa: Erretiro hori aukeratzen duen pertsonalak eskaeraren unean indarrean dagoen lanaldi osoaren % 100etik % 50era gutxituko du lanaldia.

Interesdunak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako kotizazio-oinarriei eta lan-bizitzari buruzko txostenak aurkeztu beharko ditu. Halaber, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren txostena aurkeztu beharko du, behin betiko erretiroaren data egiaztatzen duena, erretiro partzialerako eskubidea duen zehazteko.

IRAUPENA

Txandakako kontratuak erretiroa partzialak iraun bitartean iraungo du eta, betiere, iraungiko da erretiratu partzialak behin betiko erretiroa hartzen duen unean, edo bestela edozein egoera legalaren ondorioz kontratua iraungi dela ulertu beharra egon arte.